

HAU DE NIRE AMETSEN KOLOREA

2017KO URTARRILEAN ESTREINATUKO DA



ROUGE ELEA
ARTE BIZIDUN PROIEKTUAK
ZIRKOA DANTZA MUSIKA



DANTZA ETA AIRE ZIRKOA - [9 urtetik goiti - ordu beteko iraupena - antzokietan]

BANAKETA

Antzezleak Corine Cella, Marine Dubois, Javier Barandiaran, Ander Fernandez

Koreografia zuzendaria Fanny Soriano

Dramaturgia Oier Guillan


Eszenografia Laurent Gauthier et Marine Dubois

Musika/ soinu giroa / argiak Ander Fernandez

Idazketan laguntzaile Paola Rizza

KOEKOIZLE eta DIRULAGUNTZAK: Lapurdi Hegoaldeko Hiri Elkargoa ; CG 40_ Culture en Herbe ; Conseil départemental 64 ; Conseil Départemental des Pyrénées Atlantiques, l'OARA, l'Espace Jéliote _ scène conventionnée ; Capitale de la Culture DSS 2016 - Saint Sebastien (ESP) ; Dantza Hirian ; Lacaze aux Sottises, Théâtre de l'Olivier_ scène conventionnée (Istres - 13), Aquitaine Culture

EGONALDI ETA LAGUNTZAILEAK : Dantza Hirian, Dantzagunea/Mendi Zolan ; Lacaze aux sottises ; Lapurdi Hegoaldeko Hiri Elkargoa ; HAMEKA ; Le Parnasse ; Espace Jéliote ; La Grainerie ; le Théâtre de l'Olivier ; Théâtre des Chimères et Biarritz Culture ; Niessen - Ville de Erreterria ; L'Hostellerie Pontempeyrat - association Regards et mouvements -



*«Aingeruen ikuspuntutik,
zuhaitzen gainak
zeruetatik edaten duten
sustraiak izan litezke.....»*

Rainer Maria Rilke

SYNOPSIS

Ceci est la couleur de mes rêves hildakoeri eskainitako dantza bat da. « Egin dantza, bestela geureak egin du », zioen Pinak. Abiapuntu hori hartuta, emakume batek bizirauteko egiten du dantza. Bere oinordekotza kulturala deitzen du bizi ospatu eta dantzatzeko. Berarentzat handiegia den jaka bat, sokak eta oihalak, arbasoetatik jasotako objetuez baliatuta irauteko dantza bat abiatzen du, instintuz egindakoa, gorputzak oroitzen dituen mogimenduez. Desagertutakoen memoria bizi dadin egindako dantza euforikoa.

« Proiektu honetan gure arbasoek guregan utzitako arrastoak xerkatu nahiko nituzke, eta ikusezinak diren trazek nola eragiten duten gure gorpuzkeran. Gordetzen al du gorputzak oinordekotza basati bat, natura eta materiarekiko sakoneko erlazio bat ? »

Corine

A S M O A

*MA MÉMOIRE A UN
GOÛT DE TERRE,
DE NEIGE
ET DE FÊTES*

Bi mogimendutan gertatzen da : sustraitzea eta hegaztatzea, bietan ere memoria intimoa galdekatu nahi dut neure burua hobe ulertzeko.

*J'AI APPRIS À DANSER
QUAND J'AVAIS
LA HAUTEUR DE VOS
JAMBES*


Lehenengo zatia lurrari iltzatua irudikatzen dut, desagertutakoen oroitzapeneri lotua, objektu konkretuen bidez : aizkora bat, jaka bat. Dantzaren bidezko zati bat, konfidentzia moduko bat litzakeena.

*ME TENIR À LA
RENCONTRE DE DEUX
ÉTERNITÉS LE
PASSÉ ET L'AVENIR,
ME TENIR EN
ÉQUILIBRE SUR
CETTE
LIGNE*

Bigarren zatian airea abordatuko nuke, norberaren bidea, fabrikatutako oihal objektuen bidez : oihal zatiak josiz osatutako oihal handi bat, sokak. Aire gorputzak bere lekua hartuko du.

Eszenatokian lagun izango dut artista plastiko bat, manipuladore bat. Bestearen, joandakoaren presentzia sotila gorputzuko du aparizioen bidez, fantasma moduan edo objektuak manipulatur.

Bilaketarako kontraesanekin jokatu dugu, talka bilatuz ; goxoa eta latza, galera eta poza, hondoratze eta hegaztatzea, gorputz garaikide eta tradizionala, oraina eta memoria... Kontrastez osatutako poesia baten bila.



**EGUN EZ DAKIT HAIZEAREN NORANTZA
ASMATZEN, EZTA ZERUAREN KOLOREA EDO
LURRAREN USAINA INTERPRETATZEN... EZ DUT
NIRE ARBASOEN JAKITURIA NEUREGANATU**

© Gaëlle Berthomé

**ERE, NIRE HAURTZAROA ASKATASUN
BASATIAZ GAINEZKA OROITZEN DUT. BIZITZA
PUZTU ETA DANTZA EGITERA BULTZATZEN NAUEN
HAIZEA.**

EKIPO ARTISTIKOA

Corine Cella_ sortzailea

Rouge Eléa konpainiaren senean garatzen ditu bere proiektuak, zuzendari, interprete edo egile bezala. Airezko zirku formakuntza Marseilan, Rosny-sous-bois eta Bruselan jaso ondoren lehen pieza 2003an sortu zuen, Calao.

Bere piezetan intimitatea, hauskortasuna, indarra (arintasuna mozturro hartuta) eta gorputzean oihartzun egiten duten hitzak erabiltzen ditu.

Bi motorek mogitzen dute bere sorkuntza: askatasun bilaketa_ zirkuaren bidez adierazten dena, aireeratzearen bidez_ eta iragana eta etorkizunaren talka den denboraren galdekatzea, egun iraultza eta muturreko aldaketetako tentsio puntua den oraina.

Jorratutako idazketa bideak etnologiarantz gerturatu dute eta 2011 eta 2012an formakuntzak osatu zituen etnografia.

Bere lan propioekin ez ezik Corinek bestelako konpainiekin ere egin du lan: Compagnie Lunatic, le Transe Express, Archaos, La Petite Compagnie, Quoi de Neuf Docteur, Nacera Belaza...

Fanny Soriano_ zuzendaria

Fisikalidade eta poetika bakaneko sortzailea. Ronde ikusgarriaren hastapeneko sortzailea izan zen.

CNAC eskolan 1999an diplomatua, Archaos, Cirque Plume, Balagan, CAHIN-CAHA, AOC, l'Ensemble Télémaque, le groupe TRYO, le chanteur ALDEBERT, la Comédie Française konpainiekin egin du lan. Libertivore konpainia sortu zuen Jules Beckmanekin eta HETRE ikuskizuna sortu du 2015ean.

Ander Fernandez_ musikaria

Ikuskizunetarako musika egiten urteak daramatza Ander Fernandez- ek. Teatroa, poesia, zirkoa eta dantza ikuskizunen artean ibiltzen da zuzeneko musikari eta sortzaile. Muskulo taldearen parte da.

Metrokoadroka kolektiboaren partaide da eta Dejabu panpin laborategiarekin ere erlazioa estua du, Mikelazulo Kultur Elkartean urteetan zehar edukitako hartu emaneri jarraipena emanez.

Marine Dubois_

Eszenografia sortzailea, artista plastikoa, txotxongilolaria eta jantzi sortzailea, unibertso bakanen jabedun.

Bruselako La Cambre eskolan formatua, oihala, metala, egurra eta erretxina lantzen ditu ikuskizunetarako duela 15 urte inguru. Marseilako Latypique konpainia kozuzentzen du.

Javier Barandiaran_

Aktorea, performerra eta antzerki sortzailea. *Ronde- bi ahizpa* ikuskizunean teknikari eta kanpo begirada izan da. Euskal Herriko konpainia ugariarekin lan egin du, Metrokoadroka, Artedrama, Hika, Hecho en Casa, Théâtre du Rivage.



KONPANIA

Konpainiaren ikuskizunak musika, dantza eta objektuen uztarketatik sortzen dira. Diziplina arteko lurraldeak ikertzen ditu kartografia propio baten bila eta izateari buruz galdekatzeko bere burua.

2003an Corine Cella- k sortu zuen konpainia, zirku formakuntza duen dantzaria. Lehenik Calao ikuskizuna sortu zuen, egun oraindik zuhaitzetatik zintzilik ematen dena. 2007an Ander Fernandez ezagutzen du, sortzaile eta musikari euskalduna, eta berarekin konpartitu ditu hurren etorri diren ikuskizunak; *à la poursuite du vent* (2007, emakumeen ikuspegitik emandako abenturari buruzkoa), *Biutz* (2012, mugen inguruan hausnartzen duen bideo, zirku- dantza eta musika sorkuntza) eta *Ronde-Bi ahizpa* (2014, anaitasunari buruzko ikuskizuna).

Gizasemearen sustrai eta adarrak, hala nola hegoak non kokatzen diren, zein azal duten ulertzen saiatzen da konpainia bere lanen bidez. Horretarako eskura dituen tresna guztiak ikertu nahi ditu, dela gorputza, hitza, musika eta batez ere begirada. Ingurura begiratu eta inguruari begirada itzuli.

Memoriari buruzko diptiko bat da konpainiaren hurrengo proiektua, *Zuek*, etxeko super8 bideoekin osatutako zine kontzertua (2015eko maiatzean estreinatua) eta *Bleu // Ceci est la couleur de mes rêves*, dantza eta zirkoa nahastuz oinordekotza eta memoria galdekatzen dituen (2017ko urtarrilean estreinatuko da) estreinatuko da)

COMPAGNIE
ROUGE ELEA
www.rougeelea.com

irun calera 3
64700 Hendaia
+33 (0)6 61 69 46 87
contact@rougeelea.com